

FAMILIENTZAKO AHOLKU BALIAGARRIAK

6. aholkua. Oinarrizko zer urrats bete behar ditugu pribatutasuna mantentzeko?

1. Aplikazioetan erregistratzean, deskargak egitean eta horiek erabiltzean, zintzo jokatu behar dugu gure adinari dagokionez. Adibidez, Facebookera sartzeko, beharrezkoa izango da gutxienez 14 urte izatea. Irakats diezaiegun seme-alabei sartzeko gutxienerako adinak errespetatu dituzaten.
2. Informazio pertsonalari dagokionez (telefono-zenbakia, helbidea edo beste datu pertsonal batzuk), garrantzitsua da fisikoki ezagutzen dituzten pertsonekin eta harreman estua duten pertsonekin bakarrik partekatzea.
3. Sare sozialetan, garrantzitsua da gure profiletan pribatutasunaren ezarpenak aktibatuta izatea. Gainera, ziurtatu zure seme-alabak badakiela nola baztertu edo blokeatzen diren sareko beste erabiltzaile batzuen kontaktuak. Ez da zuzena beste pertsona baten itxurak egitea, baina, badagoenez halakoak egiten dituenik, neurri egokiak ezarri behar dira inork gure identitatea ordeztu ez dezan: pasahitz segurua hartzea eta inorekin ez partekatzea, saioa behar bezala ixtea...
4. Pasahitza segurua izateko, gutxienez 8 karaktere izan behar ditu, zenbakiak letra larri eta xeheekin nahastuta.
5. Sare sozialen profiletan, oso informazio pertsonala jartzen dugu, pasahitzarekin sartzen den pertsonak bakarrik ikus dezakeena. Hori dela eta, garrantzitsua da gure pasahitza inorekin ez partekatzea.
6. Komeni da fisikoki ezagutzen ditugun pertsonekin harremanak izatea eta horiei erantzutea. Oso garrantzitsua da irudi pertsonalen bidalketa behar bezala kudeatzea.
7. Garrantzitsua da kontaktuen taldeak sortzea; talde bakoitzarekin dugun konfiantzaren arabera, partekatuko dugun informazioa hautatuko dugu.
8. Garrantzitsua da Internetera sartzen dugun guztiak zer irismen izango duen barneratzea. Foroaren ahalmena uste dugun baino askoz ere handiagoa da, sartzen dugun guztia irakurri edo ikusiko baita han. Horrenbestez, garrantzitsua da partekatzen diren gauzen edukia aintzat hartzea.
9. Garrantzitsua da zuhertasunez nabigatzea Internetera wifi sare publiko baten bidez sartzen garenean. Gure tresnaren barneko informazioa erraz eskura daiteke. Hortaz, saihestu egin behar dugu datu pertsonalak jartzea. Aholkatzen da modu funtzionalean besterik ez nabigatzea.
10. Beste inoren irudi "konprometitua" iristen bazaizkizu, ez partekatu; bestela, zabalkunde horren konplize izango gara. Gomendatzen da zuzenean ezabatzea, guri ez dagokigun pribatutasun-eremukoak baitira.